



10.000 KILO SAHARARREI LAGUNTZEKO

Tolosaldea Sahararekin elkarteak 'Piztu itxaropena' lelopean janari bilketa jarri du abian eskualdean >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Igandea
2007-12-23

V. URTEA 1.321. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Jende ugari izan zen atzo Azoka Bereziko gune desberdinetan; aukera zabala izan zen erosgai eta ikusgai jarri zituzten postuetan. A. IMAZ

GIRO BIKAINA AZOKA BEREZIAN

TOLOSA Gabonetako Azoka Berezian jende ugari izan zen atzo; Jabier Otegik irabazi zuen Odolki Lehiaketa 7

Altzoko errota zaharra martxan jarri dute berriro ere herritarren aurrean

ALTZO Atzo ireki zuten lehenengoz Gipuzkoako errota zaharrenetarikoa 6

Voith-Gorostidiko bigarren zozketa, ostegunean

TOLOSA Udal Musika Eskolan izango da, urriaren 24ean etxebizitza egokitu zitzaizkiren artean 6

Iurramendiko langileen egoera salatu dute ELA eta LAB sindikatuek

TOLOSA Egoitzaren zuzendariaren jarrera gogor kritikatu dute 6

Egunotan ez da HITZARIK izango

Etzi, Gabon Egunean, eta asteazkenean, ez da HITZARIK argitaratuko, bihar eta etzi jai hartuko dutelako langileek. Ostegunean berriz zuekin izango gara. Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu.

Gabon hauetan saia gaitezen hondakin gutxiago sortzen!

8 aholku gauzak berrerabiltzeko

1. Erabili exean duzun papera opariak biltzeko (erabiltako opari papera, egunkari papera...).
2. Ahal izanez gero, erabili itzultzeko edo berriz erabiltzeko ontziak eta artikulak birziklatuak.

3. Bota baino lehen, konpondu tresnak eta ojektuak bizitza-zikloa luzatzearen.

4. Oparitu edo eman (elkartek, edukiontzi berezia...) jada behar ez duzun arropa.

5. Altxariak, etxeko tresna elektrikoak, liburak, etab. bota baino lehen, jasotzen dituen elkarrek badagoen jakin; bestela erabili altxariak eta traste zaharrak jasotzen dituen zerbitzua.

6. Kontsumitu behin eta berriz erabili daitezkeen aparatuak eta tresnak: ezpain-zapiak, mahai-tresnak, edalontziak, platerak, argazki-kamerak, bizar-aitzurak, pizgailuak, boligrafoak, inprimagailuarentzat berriz kargatutako kartuak...

7. Erabilpen berriak eman gauzei: kristalezko poteak gauzak gordetzeko, prestatutako janaria izozteko brik-etan jaso, oihalak eskulanetan erabili...

8. Erosi bigarren eskuko produktuak (arropa, autoentzako piezak...).

11 aholku hondakinak murrizteko:

1. Jostailu edo aparatu elektriko eta elektronikoak aukeratzeko, lehenetsi sare elektrikoak konektatzen direnak; bigarrenik, berriz kargatzeko bateriak dituztenak eta, azkenik, berriz kargatzeko pilak erabiltzen dituztenak.

2. Opariak erostera koan, aukeratu hondakinak sortzen ez dutenak.

3. Eraman erosketarako poltsa edo karrotxoa eta erosi baino lehen egin erosketa-zerrenda.

4. Hautatu ontzi eta bilgarri gutxien dituzten produktuak. Ez onartu beharrezkoak ez diren poltsak.

5. Erosi tokiko elikagaiak eta gainera, garai horretakoak direnak: bilgarriak eta garraioa aurreztuko dituzu.

6. Aukeratu produktu kontzentratuak, berriz betetzekoak eta ontzi familiarak.

7. Ahal izanez gero, erosi ontziratu gabeko produktuak behar duzun kopurua hautatuz, alferrikoak diren bilgarriak alde batera utzi.

8. Murriztu etxeko produktu ariskuetsuen erabilera: pinturak, barnizak, disolbatzaileak... Erabili horien ordezko produktu ekologikoak, hala nola ur-pinturak.

9. Altxera bota etxera iristen den propaganda komertziala.

10. Erabili posta elektronikoa eta inprimatu ezinbestekoa dena bakarrik.

11. Erabili orrien bi aldeak.



Kontsumoaren aroa



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Kontsumoaren aroan bizi gara, eta Eguberriak kontsumoaren festa eta eromen kolektiboaren ikur bihurtu dira.

Ondo baino hobeto bizitzeko baldintzak izan arren, inoiz ez dugu nahikoa; geroz eta gehiago nahi dugu. Etenik gabeko katea. Nahi genuen hori lortu bezain laster, behar berri bat sortzen diogu (gure bizitza osoa betetzen duen publizitateak nahikotxo laguntzen du, egia esan) geure buruari. Aseezintasun batean bizi gara eta horrela ezin patxada eta oreka topatu.

Gizon zoriontsuaren alkandora Tolstoïren ipuin klasikoarekin gogoratu naiz:

Bazen behin herrialde urrun batean oso triste bizi zen erregea. Dena zuen, baina hala ere beti penezan. Hain zegoen triste gaixotu egin zela. Erreinuako mediku eta jakintsu ezagunenak bere inguruan bildu ziren. Denetarik frogatu zuten, edabeak, enplastoak... ezerk ez zuen onbidean jartzen. Ilunabar batean, etsitzen hasiak zirenean, agure bat azaldu zen erregearen aurrera eta halaxe esan zion:

- Errege jauna, zoriontsu bizi den norbait topatu behar duzu eta

bere alkandora egun oso batez jantzi ondoren, osatuko zara.

Erregeak bere agindupean zeuden guztiak zorion batean bizi zen pertsonaren bila bidali zituen. As-teak eman zituzten herri etaazienda guztiak miatzen: aberatsa gaixo zegoen, osasuntsu zegoenak sosik ez zuen, osasunez eta diruz ongi zebilenak arazoak zituen bizilagunarekin, besteak senararekin eta azkenak semearekin. Denei falta zitzaien zerbaite zoriontsu izateko.

Halako batean nekazari batekin topo egin zuten, lanetik zetorren irrifartsu eta alai. Zoriontsua ote zen galdetu ziotenean halaxe erantzun zien:

- Nola ez naiz ba zoriontsu bizi-ko, bizitza ederra da, lanik ez zait falta, osasunez ondo baino hobeto nago, maite nauten eta maite ditudan senide eta lagunak ditut. Zer gehiago eska dezaket?

Erregearen emisarioak txoratzten zeuden. Topatu zuten azkenik zoriontsu bizi zen norbait! Erregea sendatzeko bere alkandora behar zutela adierazi ziotenean, nekazariak alkandorarik ez zuela erantzun zien harrituta.

Nahi eta behar duguna eta dugunaren arteko tartea laburtzen doan heinean zoriontasuna (edo barne lasaitasuna, oreka... nahi duzuen bezala deitu) handitzen doa.

K Komikia

Gorka Salaberria



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza

» **Iritzia**

Inazio Agirre
Ezker abertzaleko kidea

Gaurko Euskal Herriaz gain, Akitania, Kantabria, Errioxa, Burgos, Soria, Huesca eta Lleida euskararen lurraldeak ziren, orain delabi milaurte. (*El Euskera Arcaico. Extension y parentescos*, Luis Nuñez). Harrezkero, euskarak atzeraka egin du, bere zabaltze geografikoan, bere hedatze demografikoan eta bere erabilera esparruetan. Baina atzeratze hori ez da txirripaz gertatu. Espainiak eta Frantziak Euskal Herria indarrez menderatu dute. Horren ondorioak dira Nafarroako Estatua deusestea eta tsintsitze nazionala gertatzea. Euskal Herria txikitzeko kultur homogeneizazioa eragin, hizkuntz asimilazioa bultzatu eta euskal nortasuna desegin dute. Euskarari dagokionean, XVIII. mendetik aurrera, euskararen aurkako errepresioa idatziz ageri da dokumentazioan.

Euskal Herria deseuskalduntzeko, gaztelaniaren eta frantsesaren lurralde kanpoko erabilera baztertzalea inposatu dute Euskal Herrian. Asimilazio horren injustizia gainditzeko, orain, alderantziko norabidean egin behar da prozesua. Euskal Herria euskalduntzeko euskal estatuak euskararen erabilera bere lurraldean berezartzeko lortu behar du, normalizatze prozesua abertzatuz. Bide horretan, ezker biderzaleak transiziorako proposamena egin du: euskarak ofiziala izatea Euskal Herri osoan, euskara hutseko erabilerarekin euskaldunak %70etik gora diren udalerrietan eta eremu sozialetan; gaztelania eta frantsesa ofizialkide izango dira gazpokien eremuetan. Horretarako, esparru juridiko politiko berria lortu behar da: bi autonomia, erabakitzeko eskubidearekin. Proposamen honek balio du Euskal Herria euskalduntzeko eta hizkuntz gatazka gainditzeko.

Proposamen horrek ekarri behar du euskararen erabilera publi-

koak eta sozialak zabaltea Euskal Herriko arlo sozial guztietara, eta gaitelariaren eta frantsesaren erabilakerr beregokitzeko norberaren, familiakoaren eta lagunartekoen arloetara. Hizkuntz erabileren birbanaketa hori derrigorrezkoa eta proportzionatua da, Euskal Herria euskalduntzeko eta bere garapen iraunkorra bermatzeko. Demokratikoa da: herriak du hitza eta erabakia. Zilegi da: hizkuntz komunitate guztiek dute osotasun batean bizitzeko eskubidea dagozkie lurralde historikoetan. (1996koartzelunako Hizkuntz Eskubidearen Deklarazio Unibertsala, 1966).

Horretarako, behar beharrezkoa da Euskal Herri euskaldunaren aldeko indarrak biltzea eta sendotzea. Tamalez, egiaztatzen dugu EAJren helburua ez dela Euskal Herria euskalduntzea. Aipagarriak dira, EAEko lehendakariak eta EBBko presidentek eman dituzten bi adibide:

1. Euroeskualdearen bigarren osoko biltzarrean, Juan Jose Iba-

retxe EAeko lehendakaria, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Alain Rousset Akitaniako presidentea, Jean Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoko presidentea eta Alain Lamassoué Haute-Normandieko presidentea bildu dira, 2007-12-13an, Baionan, eta lehen lan ildoak zehaztu dituzte. Bileraren ostean, Alain Rousset, Akitaniako Presidenteari honela zioen: «Hizkuntzen arazoa gainditzeko auzorearen hizkuntza ikastetxik hasi behar dugu: guk, hemen, gaztelania eta han, frantsesa». Ez euskararen aipamenik, ez Euskal Herriaren aipurik. Horién asmoa garbi dago, asimilazioa jarraitzea, euskara desagertzeta eta Euskal Herria desagitea. Baina Ibarretxekek ez du hizkuntza nazionalaren posizioa babestu. Ez du adierazi euskara da Euskal Herriaren hizkuntza eta guztizki jakin behar dugu.

2. Urkullu EAJren EBBko presidentea Euskal Herriko selekzioaren aurka agertu da, futbolaren arloan. Urkulluk argi azaldu du EAJren proiektu politikoa ez dela

zazpi lurraldez osatutako nazioa-
rena, Euskadi izeneko hiru lurral-
detara mugatzen dela.

Azpiratzen duen politikarekiko jendartearen zentzu kritikoaz gabeturik, menderatze unibertsaletzatzen da, eta botereak lasaiegiten du. Inor ez baita ametsak egitera auzartzen, eta proposamen demokratiko bat egiten duenak (ezker abertzaleak egin duen bezala) gartzelan bukatzen du.

Hogeita hamar urteko autonomia sakabanatzailearen trampa eta hizkuntz politikaren porrota eza-gutxi ondoren, Euskal Estatu pro-pioa berreraikitzeko garaia da, euskarak behar dituen ofizialtasun eta politikak izateko, Euskal Herri euskalduna bermatzeko. Inde-pendentsia behar dugu lan harre-manetako esparru propioa eduki-zeko, sexu indarkeriaren aurkako lege integralak lantzeko, hezkun-tza sistema eraginkorra eta eredu sozial propioa ezkerretik eraiki-tzeko, ama lurra zaintzeko, herri-tarren aukera berdintasuna, elkar-tasuna eta justizia soziala onarrit-zat hartzeko, Euskal Herriaren bideragarritasun geoestrategikoa bermatzeko. Herria da gorpuzta, hizkuntza bihotza.

Gabonetan ere euskal presoak etxera

» **Iritzia**

Mikel Zabala
Tolosako Amnistiaren Aldeko
Mugimenduaren izenean

Berriro ere, 2007. urtea amaitzeaz dugun honetan, herritar guztion elkartasunari deitzen diogu, bai politikoari, baita ekonomikoari ere, dispertsioak eta orohar oinarrizko eskubideak urratzen dituzten espetxe politikak eragiten duen sufrimenduari aurre egiteko.

Data hauek lagun eta senideak mahai baten inguruan elkartzearekin lotzen ditugu nahitaez. Milaka euskal familitan senideren bat faltako da eta ezingo dituzte egun hauek guztiz disfrutatu. Erbesterratzearen zalantzak edo kartzela-

ratzearen gogortasunak bete ezinezko hutsuneak uzten dituzte, osatugabeko irribarreak marrazten dituzte.

Justizian oinarritutako bakea izango duen etorkizunaren itxaropen ezin gaitu merezi ez dugun sufrimendua dakarkigun errealtatetik urrundu. Euskal Herrian eragile politiko, sindikal eta sozial gehienek presoaren eskubideen aldeko apustua egiten duten bitartean, estatu frantses eta espainiarreko agintariek ez dute inolako paurik ematen errespetu hau gauzatu dadin. Guztiz kontrakoak Dispersioaren areagotzea eta osasun asistentzia eza, EHUn ikasteko edota lagun eta senideekin murrizketarik gabe komunikatzeko eskubidearen murrizketak sistematioko aurrean aurkitzen gara.

Dispersioak ez dakar soilik gure senide eta lagunak bere inguruetatik aldentzea; dispersioa Euskal Preso Politikoan Kolektiboa apurtzeko neurri politikoa da, berau ahuldu eta neurri errepresibo sakonagoak ezarri ahal izateko. Presoei eta beraiei inguruko lagunei eta senideei eragiten dien presio neurria da. Kartzelako harresi- sen baruan zein kanpoan hiltzen duen neurria da, ziegat bat baino gehiagoko harresiak eta errepide- ak ditugarik honen lekuko triste- ak.

Ez da erraza estatuen kartzela politikak zenbat eta nolako sufri-menduak sortzen dituen jakitea, baina sortzen dituela ulertzea erraza da, baita ez dela legezkoa, ezta justua ere.

Zoritxarrez, ez dirudi estatuek

min hau arintzeko eta egoera honenkin bukatzeko asmorik dutenik. Orain dela gutxi, Espainiar Estatu-ko fiskaltzak ikasturte politiko honetarako betebeharrak nagusietako bat disertsioan sakontzea zela esan zuen, honela kartzetako loturak puskatzeko. Zoritzarrez, horretan ari dira.

Minbizi horrekin bukatzeko errezeta bakarra, orain arte bezala, elkartasun politikoa, gizatiarra eta ekonomikoa da. Osasun eskubideak, asistentzia juridikoak edota bisi- tek gastu izugarria eta jarraitua eskatzen dute.

Guzti honi aurre egiteko, badi-tugu zenbait zita eta aukera. Bihar, abenduak 24, Olentzero eguna, urtero egin ohi dugun manifesta-ziora gonbidatzen zaituztegu, 18:45ean Triangulotik abiatuko

delarik. Abenduaren 28an, azken ostirala izanik, Etxerat Elkarteak antolatzen duen elkarretaratzera joateko deia luzatzen dugu; hau, 19:30ean izango da Trianguloko plazan. Abenduaren 31n, berriz, preso eta iheslarien aldeko topa egingo dugu Triangulon 19:00etan hasita, eta Urte Berrian sartuta, urtarilaren leuan, Uzturrera igotzerako egingo dugu; hau ere ohikoa den ekimena.

Beste alde batetik, gorga oipatu dugun moduan, ekonomikoki bere aportazioa egin nahi duenak, dendaz-denda pasako gara, edota materiala (arropa, egutegiak...) erosten izango du aukera. Honetarako mahaia jarriki ditugu Tonto Kalean hurrengo egunetan: bihar, eta abenduaren 29an goizez, eta urtarillaren 4ean arratsaldez eta 5ean goizez eta arratsaldez.

Herritar guztion laguntza alde aurretik eskertuz, Eguberri on bat pasatzea opa dizuegu.

B Blogteka

Sahararako janari bilketa abian da dagoeneko

Iritsi da abendua eta urtero bezala *Piztu Itxaropena* izeneko programa jarri dugun martxan. Urtero egiten dugun bezala, Saharako errefuxiatu kanpamentuetara bidaltzeko janari biltzean datza. Aurten bilduko ditugun elikagaiak arroza, azukrea, lentejak eta atuna dira eta besteak beste, baita konpresak ere. Honetarako toki ezberdinak ipiniko

dira: Tolosan, ikastetxe ezberdi-
nez gain, Eroskin, Ifan eta Con-
sumen jarriko dira, gainera, aben-
duaren 26tik aurrera Laskorain
Ikastolak antolatzen duen Merka-
tu Txikian ere izango da elikagaiak
uzteko txokoa. Zure laguntza
ezinbestekoa da. Aurten erronka
garrantzitsua dugu: Tolosaldean
10.000 kilo jaso nahi ditugu.

Tolosaldea Sahararekin
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/sahararekin>

Txolarre iratiaren zazpigarren urteurrena

2000. urteko abenduaren 26an Olentzerok Tolosaldeari opari ederra ekarri zion: Txolarre Irratia.

Elkarrekin euskaraz aritzeko tresna oparitu zigun eta zazpi urtetan etenik gabe erabili dugu elkarren berri jakiteko, egiten duguna elkarri erakusteko eta elkarren artean iritziak trukatzeko. Hortaz,

orain guztioi dagokigu Txolarre Irratiaren zazpigarren urtemuga ospatzea. Datorren asteazkenean, hilaren 26an, Txolarre Irratiaren atea eta mikrofonoak zabalik izango dira gure eskualdeko euskarazko irratia zoriondu ahal izateko. Beraz, azaldu beldurrik gabe!

Tolosaldeko ahotsa
(Txolarre irratia)
<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/txolarre>

Bertso saioa Leidorren

Laskorain ikastolaren 40. urteurrena dela eta, bertso jaialdi mundiala antolatu dugu abenduaren 29an, Leidorren. Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren 8 finalistek parte hartuko dute. Sarrerak salgai Ikastolako idazkaritzetan eta Rakun. Orbelan eta Ikatzan.

Laskorain ikastolaren bloga
<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/laskorain>

'Piztu itxaropena' lelopean Tolosaldea Sahararekin elkarrekin abian jarri du sahararrei laguntzeko janari bilketa; aurtun 10.000 kilo biltzeko erronka jarri dute; urtarilaren 25era arte iraungo du kanpainak.

Esfortzu txikia, lorpen handia



SAHARAKO ERREALITATEA HAMABI IRUDITAN

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin ere erosgai jarriko du Laskorain ikastolak antolatzen duen Merkatu Txikian Saharari buruzko 2008ko egutegia. Errefuxiatuen kanpamentuetako nahiz Sahara okupatuko argazkiak agertzen dira bertan. 10 euroren truke eros daiteke, eta bide batez, laguntzeko beste modu bat ere bada.



» JANARI BILKETA

■ **Zer utzi behar da?** Hegaluzea, lentejak, azukrea, arroza eta konpresak.

■ **Non?** Tolosako ikastetxeetan eta Maxi Eroski, Eroski Center eta BM supermerkatuetan, eta baita, Alegia, Ibarra, Anoeta, Irura, Lizartza, Larraul, Leaburu, Belauntza, Gaztelu, Oresa eta Villabonako Kultur Etxe edo udaletxeetan. Abenduaren 26tik aurrera Laskorain Merkatu Txikian ere bai.

■ **Erronka.** 10.000 kilo bildu nahi dituzte eskualdean Tolosaldea Sahararekin elkarrekin.

■ **Noiz arte.** Urtarilaren 25era arte izan da janari bilketa.

INIGO TERRADILLOS

Aurtun ere martxan da sahararrei laguntzeko janari bilketa. Gure eskualdean Tolosaldea Sahararekin elkarrekin arduratzen da janari bilketaz *Piztu itxaropena* leloarekin. Gainera, aurtengoan, iaz bezala, badute erronka bat, 10.000 kilo gainditzea, hain zuzen.

Jakiei dagokionez, arroza, azukrea, lentejak eta atuna bilduko dituzte, eta bestalde, baita konpresak ere. Honetarako leku ezberdinak egokitu dituzte Sahararen aldeko elkartekoek: Tolosan, ikastetxe ezberdinez gain, Maxi Eroski, BM eta Eroski Center supermerkatuetan utzi ahalko dira jakiak. Leku hauetatik aparte, datorren asteazketik martxan egongo den Lasko-

rain ikastolak antolaturiko Merkatu Txikian ere janari bilketarako txokoa egongo da. Tolosan, beraz, hainbat txokotan utzi ahalko dira jakiak gero Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara eman ditzaten; baina, eskualdean ere beste hainbat herrik egin dute bat dagoeneko ekimenarekin, Alegiak, Ibarra, Anoeta, Irurak, Lizartza, Larraul, Leaburu, Belauntza, Gaztelu, Oresa eta Villabonak, esaterako. Hauetan, Kultur Etxeetan edota udaletxeetan izango da janaria uzteko aukera.

Laguntza gero eta txikiagoa

Urtetik urtera garrantzitsuagoa dute sahararrek aurrera egiteko janari bilketetan ahalik eta janari gehien biltzea, izan ere, erakunde-

etatik iristen zaien laguntza txikituz doa pixkanaka. ONUren kasuan, aurreko urtean ematen zuten laguntza %46an jaitsi bazuen aurtun hori PAMek (mundu mailan elikadura banatzen duen taldeak) %55era jaitsi du. Beraz, argi dago egoera gero eta larriagoa dela, eta guztien laguntza behar dutela.

Gainditu beharreko erronka

Tolosaldea Sahararekin elkarrekin iaz eginiko janari bilketan 7.000 kilora heltzeko erronka jarri zuen, eta erronka gainditu egin zuen, eta nolabait gainera, ia 9.000 kilo janari bildu baitziren eskualdean. Aurtun erronka handitu eta 10.000 kiloko muga jarri dute, baina iazko harrerara ikusita ez dirudi hori ere gainditzea zaila izango denik; ho-

rretarako noski guztien parte-hartzea beharko da, eta pentsa eskualdean bizi diren guztiek kilo bakar bat utziz gero lortuko litzatekeena... Azken batean, eta elkartekoek dioten bezala, «guretzat gutxi dena haienztat asko dela gogoratu, guztioi janari bilketako txokotara gerturatzeko deialdia egiten dizuegu». Halaber, iaz bezala, urtarilaren 7tik aurrera Kultur Etxearen kanpoaldean kartel handi bat jarriko dute zenbat kilo ari diren biltzen herritarrek ikus dezaten.

Laguntzeko modu ugari

Janari bilketaz gain, modu gehiago ere badira sahararrak laguntzeko. Bata, Laskorain Merkatu Txikian parte hartzea da, izan ere, ber-

tan ateratako diruaren zati bat errefuxiatuen kanpamentuetara bideratuko da. Bestea kontu korronte (Kutxa: 210100672200 11180866; La Caixa: 210017586800 00077750) bidez diru laguntzealitzateke; eta Saharari buruz egin dituzten egutegiak erostearrekin ere lagundu daiteke.

Hainbat proiektu

Lortutako diruarekin hainbat proiektu burutzen ditu urtero errefuxiatuen kanpamentuetan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin. Orain lortzen dutenarekin, martxan jarri duten *Sahara Hurria* egunkaria lagundu, generadore bat erosi, eta balioanitzeko zentro bat ornitzen lagunduko dutela azaldu dute.

32 urteko amesgaiztoa

I. TERRADILLOS

Sahararrak egun dauden egoera ondo ulertzeko urteetan atzera egin eta historian errepasu bat egin egin ezinbestekoa da. Hain zuzen ere, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin garrantzia ematen diote egun dauden egoerara nola heldu diren jendeari jakinarazi edo gogorarazteari. Horretarako, eskuorriak prestatu dituzte jendenaren

artearen banatzeko, eta hauetan hainbat datu ematen dituzte janari bilketaz gain:

«Orain dela 32 urte, Espainiak saharar herria Marokoren esku utzi zuen, inoiz argitaratuko ez diren sekretupeko akordioaren ostean. Urte hauetan guztietan, batzuk tortura eta heriotza artean eta denek gosea lagun dutelarik bizi izan dira. Autodeterminazioa eta inde-

pendentzia Sahararentzat! Maroko Saharatik at!».

1884tik 1975era Espainiaren kolonia izan zen Sahara. Marokoren esku utzi eta gero, honek, itxuraz, onartu zuen Saharak autodeterminazioa erreferendum bidez erabakitzea, baina ez zen gauzatu. Egoera ez da gehiegi aldatu, eta Marokok jarrera aldatu ezean ez dirudi gehiegi hobetuko denik.



ESTALDUREN ERABERRITZEA

FATXADA ETA ETXEBIZITZAK

IGELTSERITZA ORO HAR

PAGOLA ERAIKUNTZAK, S.L.

Izaskun Bidea, 7 behea • 20400 **TOLOSA** (Gipuzkoa)

Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33

Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80



LAB eta ELA bat eginik lurramendin

TOLOSA • ELA eta LAB sindikatuek elkarretaratzea burutu zuten atzo goizean lurramendi egoitzaren atarian. Bi sindikatuek gogor salatu zuten Elena Basagoitiaren jarra, hots, lurramendi egoitzaren zuzendariarena. Lehenik «bertan lan egiten dugun azpikontratutako langileoi ez gaitu pakean uzten» aipatu zuten. Egoera okertu egin dela gaineratu zuten ondoren, «justifikaziorik ez duen kaleratze bat probokatu nahi du orain, egoiliar bati tratu txarrak emateagatik, berak esan duenez, baina, hori gezurra da». Bi sindikatuek bat egin zuten eta «horrelakorik onartzeko ez gaudelako prest» azaldu zuten, *Jasanezinezko esku-hartze gehiagorik ez!* lelopean. HITZA

Zure oparia?
LEIZE
Gabon zoriontsuak
Korreo kalea, 19 • Tolosa

Laiet
TABERNA
Gosariak eta musika ona
Arostegieta • 943 675 119 • TOLOSA

Felixer Plana
Aurreikuspen Pentsio Planak
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

elkar
12 ibilaldi proposamen, hilabete bakoitzeko bat. Gabonetarako opari aproposa prezio ezin hobean. Zatoz elkar megadendara eta lortu **elkar agenda!**

Con las excursiones más apropiadas para cada mes. El mejor regalo para estas Navidades a un precio increíble. Ven a elkar megadenda y consigue tu **elkar agenda!**

2 €-ren truke

elkar
agenda 2008



Errota martxan jarri zuten. N. G.

Altzo beheko errota zaharra martxan jarri dute ordubetez, presa hustu arte

Altzo » Gipuzkoako errotarik zaharrenetakoa da eta duela 2 urte konpondu zuten arren, atzo ireki zuten lehenengoz

N. GARZIA

Atzo 15:30ean Altzoko errota martxan jarri zuten. 55 lagun inguru bertaratu ziren herriko errota honen funtzionamendua ikusteko, normalean itxita egoten baita. Errota gainean dagoen presa propio zabaldu zuten, eta honela, errota martxan jarri eta artoa hirina nola bihurtzen zen ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Gauregun ordubeteko iraupena duela azaldu dute antolatzaileek, errepidea egin zutenetik, lehenago errota zuzenean errekatik hartzen baitzuen ura.

«Gipuzkoako errotarik zaharretakoa da», dio Irantz Arratibel zinegotziak. «Presak barku forma dauka, eta horrek oso zaharra dela esan nahi du». Inazio Zabalak (1921. urtean jaioa) gogoan du 5 urte zituela errota martxan zegoela. «Duela 40 urte inguru itxi zituzten 2 errota, goikoa eta behekoa», gehitu du.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Passat. 2004. 1.900 TDI. 130 zaldi. 620 72 76 91.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganabera eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. 665 70 86 35.

LANA

■ **Irakaslea.** Ingeleseko irakaslea behar da arratsaldez klaseak emateko. 943 67 24 48
686 97 19 62.



Gabon kantak, kalean

TOLOSA » Atzo Tolosako kaleetan musikarik ez zen faltatu. Gabonak iritsi direnez, Tolosako Musika Eskolako akordeoi eta koruko ikasleak, Villabonako Eresargi Txiki Abesbatzarekin batera, kalejiran ibili ziren Tolosako kaleetan zehar, Gabonetako kantak abesten, Koldo Tarragona eta Arantxi Padilla zuzendari zituztela. N. GARZIA

Voith-Gorostidiko zozketa, ostegunean

Etxebizitza » Urriaren 24ean etxebizitza egokitu zitzaienen artean egingo dute zozketa, bakoitzaren tamainua zehazteko.

ERREDAKZIOA

Datorren ostegunean, hilaren 27an, Voith-Gorostidiko 306 etxebizitza tasatuen bigarren zozketa egingo dute 12:00etan, Udal Musika Eskolan.

Urriaren 24ean zozketatu zituzten etxebizitzak, eta ostegunean, beste zozketa bat egingo dute, etxebizitza bat egokitu zitzaion

persona bakoitzari ze tamainutakoa egokituko zaion jakiteko, logela batekoa, bikoa...

Voith-Gorostidin orotara 319 etxebizitza tasatu eraikiko dituzte. Hasiera batean 27 bertako jabeentzako gorde zituzten arren, azkenean hauek 13 besterik hartu ez dituztenez, gainontzeko 14ak ere zozketatu egingo dituzte.

Urrian egindako zozketan 306 etxebizitza-sail zozketatu zituzten, hauetakoa bakoitza etxebizitza, garaje eta trastelekuz osatutakoa.

Ostegunean, 4 logeletako 6 etxebizitza zozketatuko dituzte, 3 logeletako 174, 2 logeletako 103, eta logela bakarreko 23.

Gabonetako bi zozketen irabazleak aukeratuak

Abaltzisketa » 1.900 eta 275 dira txartel irabazleak; lehenengoak saskia eramango du, eta bigarrenak, afari bat.

ERREDAKZIOA

Abaltzisketako Guraso Elkarteak, urtero bezala, bi zozketa antolatuta ditu Gabonetarako. Zozketa osti-

ranean egin zuten eta 1.900 zenbakia eta 275 zenbakia dira irabazleak. Guraso Elkartetik azaldu dute-nez, «lehenengoak (1.900) saski ederra eraman du, eta bigarrenak (275) bi laguntzako afaria»

Irabazleek 15 egunetako epea dute Guraso Elkarteak kideekin harremanetan jartzeko, ondorengo telefono zenbakian: 943 65 01 01. Orotara ostiralean 3.000 txartel saldu zituzten.



Mendi ibilaldia eta hamaiketakoa

IKAZTEGIETA » Atzo, Udazken Kulturalaren baitan, mendi ibilaldia antolatuta zuten. Txikienek gurasoen laguntzarekin ibilbide motza egin zuten eta 10:00etan abiatu ziren. Ibilbide luzea egin zutenak 09:30ean irten ziren. 60 lagun inguru bildu ziren orotara. «Ez genuen hainbeste jende espero», dio Joxe Mari Uria antolatzaileak. Ondoren hamaiketakoa egin zuten. N.G.



Carlos Peña Oria ibaian igerian

TOLOSA » Herenegun Carlos Peña igerilari eta abenturazalea igerian ari-tu zen Oria ibaian. Zerkausitik irten eta joan-etorri sinboliko pare bat egin zituen Zubi Berriraino. Balin (Indonesia) egin berri den klima aldaketaren nazioarteko bilkuraren helburuekin bat egiteko ekitaldia izan zen Peñarena. Urte asko ziren Orian igerian inor ibiltzen ez zela. Peñari so zegoen emakume batek azaldu duen bezala, «1940. urteaz geroztik ez nuen inor Orian igerian ikusi, paper-fabrikak gero indarra hartu baitzuten». HITZA

Arrakasta handiko Gabon Azoka Berezia ospatu da Tolosan

Azoka » Barazki zerrenda oso zabala izan zen, eta guztietan aipatzekoak mota guztietako azak eta gardua.

PABLO ALBERDI

Gabonetako Azoka Berezia oso arrakastatsua suertatu zen atzo Tolosan. Erosle kopuruak gora egin zuen, eta jai giroa oso polita izan genuen kaleetan. Mahaletan ere somatzen zen egun berezi honen eragina. Eskaintza izugarria izan genuen, bai barazkietan, baita fruta eta beste produktuetan ere. Berrikuntzaren bat ere ikusi genuen, "crones" deitutako tuberkuloaren kasu.

Triangulo plazan eta San Frantzisko ibiltokian jarritako postuetan ere oso eskaintza zabala izan zen. Txerriak, oreinkiak, postreak, ardoak eta edariak, egurrezko jostailuak eta larruzko artisautea besteen artean.

Udaletxeko plazan jarritako animalitako postuak, harreta berezia piztu zuen txikiengan eta oso giro polita izan zen bertan.

» ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
Berdura plaza		
Biola	3,00	-
Salbia	1,00	1,20
Xarbota	4,00	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Txinatar kraelina	2,50	-
Siemprevivas	6,00	-
Lobelia	4,50	-
Landina	10,00	-
Ziklamena	5,00	2,20
Krisantermoa	3,00	12,00
Gerbera	12,00	-

Bertako produktuak

Pikua	2,00	-
Matxakana	6,00	-
Errezil sagarra	0,80	8,00
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Mizpiradia	3,00	-
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ibarrako Piparrak	4,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Lekak	3,50	4,50
Erremolatxa	1,50	2,00
Urrak	2,00	3,00

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Intxaurrak	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00
Arbi morea	4,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00



Udaletxe aurrean zeuden oreinek, jende ugari bildu zuten. Haurrek ipuinetako animalioak gertutik ikusi zituzten. A. IMAZ

Gabonetako Azoka Berezia ospatu zen atzo Tolosan. Ohiko azokako produktuez gain, eskulanak eta batez ere animaliak izan ziren protagonista. Odolki Lehiaketan berriz, Jabier Otegi ordiziarak eraman zuen lehen saria.

Oreinak bakarrik falta...

ASIER IMAZ

G abonak heldu dira eta egun hauetan dena berezia da. Atzo horren adibide garbia eskaini zuen Tolosako Azoka Berezia, izan ere, eskualdeko herritar ugari bertan bildu baitzen. Kaletarrak eta baserritar-

rrak bat eginik, eskaintza bereziki elkarturik.

Oreinak udaletxe aurrean

Atzokoan, udaletxe aurrean zeudenak ziren egunerobertan ibiltzen diren politikariak. Bi ezberdintasun gutxienez agerian gerar-

tzen ziren; lehenik, itxitura baten bernean aurkitzen ziren, espetxean bezala. Bigarren ezberdintasuna eta agian argiena, atzokoek orein burua, orein gorputza eta orein hankak zituzten. Beraz, argi dago, oreinak ziren atzo udaletxe aurrean zeudenak. Gauzak horre-

la, txikiaren gozamen nagusitu zen gune horretan.

Baina Azoka Berezian gutxienez lau gune aurkitzen ziren. Ohiko Berdura plaza eta Zerkausiaz gain, Triangulon eta San Frantzisko pasealekuan, jende uholdeak zerbait han bazela zihoen. Horrela zen, eskulanak, taloak, txistorrak, odolkiak, eta abar luze bat Tolosako kaleetan aurkitzen baitziren atzokoan.

Odolki Lehiaketa

Baina zer da azoka bat lehiaketarik gabe? Babarrunak beharrezkoa duen osagai bat ardatz hartu eta San Blas Elkartek Odolki Lehiaketa antolatu zuen. Bertan, Gipuzkoako 15 harategik hartu zuten parte. Gastronomía munduko jakintsu eta afizionatu artean osaturiko epaimahaiak lehensaria Ordiziako (Gipuzkoa) Eceiza Harategiko Jabier Otegi eman zion. Bigarren berriz Oriara (Gipuzkoa) joan zen, Kepa Loidi Harategiak eraman baitzuen.

Txosnak eta AHT

Azoka berezi bat, eskaerak egiteko ere aukera bikaina da. Herritarren artean eskuorriak banatzen ibili zenik ere izan zen atzokoan. Horrela, gutxienez bi gaien inguruan herri mugimenduak lanean aritu ziren Azoka Berezian. AHT gelditu! Elkarlanak proiektuaren inguruko informazioa banatu zuen, AHTa gelditzeko kanpainaren barnean. Bestalde, Tolosako Txosna Batzordeak firma bilketa egin zuen. Sinadura bilketa Inauterietan txosnak Euskal Herria plazan egotearen aldekoa zen.



Ohiko produktuez gain, Gabonetako Azoka Berezian eskulan ezberdinak ikus zitezkeen. Bonbereneako txarangak berriz kaleak musikaz jantzi zituen. ASIER IMAZ



10°
5°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. OSTARTEAK
BEROENA 11°
HOTZENA 7°

Argitaratzaileak: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Amezketak.** Bihar, 09:00etan, presoan alde kantari aterako dira Amezketatik, eta 16:00etan Ugartetik.
■ **Alegia.** Gaztain jatea plazan 16:30etik 20:30era.
■ **Tolosa.** Joseba Otaegi zizurkil-darra eta Jon Rekondo leitzararren arteko aizkora apustua zezen-plazan 12:30ean. 4. mila euro dituzte jokoa.
■ **Leitza.** Jeiki abesbatzak eta Sinfonietta Academica Orkestrak kontzertua eskainiko dute 11:45ean Leitzako elizan. Lehen zatian Gabon kantak eta bigarrenean Sinfonietta Academica Orkestra-

rekin Mozart maixuaren *Missa Brevis et Solemnis* meza abestuko dute.

Zinema

■ **Tolosa.** Bee movie, 17:00etan, eta *Conversaciones con mi jardinero*, 19:30ean, Leidorren.
■ **Villabona.** Michael Clayton filma 19:30ean, eta *Betizu eta urrezko zintzarria* 17:00etan, Gurean.

GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
■ **Leitza.** Larraia, Ml. Elbarren, 95. 112.

BIHAR (Abenduak 24)

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, AM. San Martin, 5. 112.

ETZI (Abenduak 25)

■ **Tolosa.** Tolosa Ml. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, AM. San Martin, 5. 112.

ETZIDAMU (Abenduak 26)

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, AM. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Hamar urte, txo!

ALEGIA ● Alegiako gaztetxeak 10 urte bete ditu aurtan eta atzo, urteurrena ospatzeko jai eguna antolatu zuten. Eguerdian bazkaria egin zuten gaztetxean eta bertan 30 lagun inguru bildu ziren. Bazkaldu ondoren, arratsaldean poteoan ibili ziren. Gauean barrikotea egin zuten eta ondoren, gaztetxearen X. urteurrenaren ospakizun egun honekin amaitzeko, musika kontzertua egon zen gaztetxean. A. IMAZ



A Agurrak



Zorionak!

Alaitz (Berastegi). Zorionak pottoka, gaur 3 urte. Orain arte bezain ponpoxa jarraitu. Muxu bat familiaren partetik.



Urte askoan!

Amaia Olariaga Lasa (Tolosa). Bihar 5 urte. Olentzero ondo portatu dadila! Etxekoan partetik.




Zorionak!

Ane Haranburu (Anoeta). Beti ezkutaketa etxean barrena, orain ezkutatu ezetz beatzigarrena. Jokin zure lehengusuaren partetik.



Zorionak!

Garazi Urkizar Landa. Gaur 3 urte. Zorionak pottola!



Zorionak!

Maddi Otero (Anoeta). Gaur 9 urte. Muxutxuak etxekoan, eta, batez ere, Xubanen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

txokoa **h**

Saskia

Gorrotxategi gozotegiko produktuez osaturiko saskiaren irabazlea:

• Jesus Mariezkurrena (Leitza)

Saria emateko HITZA jarriko da zurekin harremanetan. ZORIONAK!!

HITZAren harpidedunentzat abantailak



5 sarrera pare

Haur kabareta

Agerre Teatroaren eskutik

abenduaren 27 • osteguna
17:00etan
Tolosako Leidorren

